

DBH3 EUSkara: "**Gezurrak idazteko artea**"  
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Euskal narrazio-gintzako aldiak, obrak, autoreak eta ezaugarriak ezagutu eta erlazionatu.	1.1 Euskal ohiturazko eleberriaren eta eleberri modernoaren ezaugarriak bereizten ditu.
	1.2 Euskal narrazio-gintzako erreferentziako autoreak eta haien lan esanguratsuen izenburuak erlazionatzen eta denboran kokatzen ditu (1950eko hamarkadaren aurretikoak eta ondorengoak).
	1.3 Euskal narrazio-gintzako erreferentziako lanen izenburuak eta haien testu zatiak erlazionatzen ditu.
2. Literatura-testu batean, narratzailea identifikatu eta eskatutako baldintzen arabera testua eraldatu.	2.1 Euskal narrazio-gintzako erreferentziako testu zatiak darabilten narratzaile motarekin erlazionatzen ditu, erlazioak justifikatzeko testuko adibideak emanez.
	2.2 Narratzaile eraldaketak egiten ditu aditza zuzen idatziz, pertsona kontuan izanik eta komuntadura zainduz.
3. Emandako literatura-testuetan pertsonaiek egiten, esaten, pentsatzen... dutena aztertuz, haien ezaugarri bereizgarriak ondorioztatu eta justifikatu; eta izaeraren arabera ondoriozta daitezkeen ekintzak hautatu.	3.1 Testu ezagunetako pertsonaien karakterizazioak haien pentsamendu, sentimendu, ekintza eta hitzekin erlazionatzen ditu, eleberriei buruz ikasitakoa edota bere esperientzia baliatuz.
	3.2 Pertsonaia baten deskribapeneko ekintzak, hitzak, pentsamenduak... kontuan izanik, pertsonaia deskribatzeko adjektibo egokiak hautatzen ditu.
	3.3 Pertsonaiak deskribatzeko erabil daitezkeen adjektiboek adierazten dutena pertsonaiaren hitzen bidez, haren ekintzen bidez edota haren pentsamendu edo sentimenduen bidez adierazten du.
4. Narrazioen egiturako elementuak eta euren arteko erlazioak kontuan hartuz, eta autonomia-maila onargarria erakutsiz, nor bere testua planifikatu eskema baten bidez.	4.1 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementu bakoitzerako egon daitezkeen aukerak proposatzen ditu.
	4.2 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuentzat proposatutako aukerak baloratzen eta erabakiak hartzen ditu (askotariko irizpideak baliatuz: beste elementuekiko koherentzia, sinesgarritasuna, erakargarritasuna, etab.).
	4.3 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuei buruz hartutako erabakiak idatziz adierazten ditu; planifikazio-orrialde batean jasotzen du.
5. Testuaren kohesioa eta zuzentasuna bermatzeko landutako baliabideak autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberarenean.	5.1 Esaldietan adierazitako ekintzak zehaztutako ordenan lotzen ditu, ekintzen arteko denbora-erlazioak adierazteko denborazko testu-antolatzaile egokiak erabiliz.
	5.2 Zuzen deklinatzen ditu eskainitako izen-sintagmak (leku-denborazko kasuak, bereziki). Salbuespenak identifikatzen eta azaltzen ditu.
6. Kasuan kasuko literatur lehiaketa-sarietarako narrazioak egokitu (Madalen sariak, Beldurrezko ipuin lehiaketa, Madelon sariak, Asun Casasola...)	6.1. Narrazio-egiturari jarraituz eta pertsonaiak karakterizatuz, narrazio-istorio zuzena idatzi, berrikusi eta entregatzen du dagokion lehiaketan
7. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	7.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.
	7.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
8. Ahozko tertulia literarioa eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz.	8.1 Irakasleak emandako aukeren artean irakurketa-liburu bat hautatzen du.
	8.2. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du.
	8.3. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.
	8.4. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz.
	8.5. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.